

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Nafarroan dauden eskualde etxeetako ordezkariari egin die harrera

Harrera 23. Aste Kulturala dela eta egin da, aurten Gaztela eta Leonen omenez

Lunes, 03 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak, larunbatean, urriaren 1ean, Nafarroan dauden estatuko beste eskualdeen zentroetako ordezkariari harrera egin die, Eskualde Etxeen Foru Erkidegoko Federazioaren Aste Kulturala dela eta. Aurten, Gaztela eta Leonen omenez egin da.

Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronu aretoan egin zen, eta Marta Vera Osasun kontseilaria izan zen burua. Harekin batera izan ziren Fátima Baigorri Erakunde Harremanetako zuzendari nagusia, Ángel Peñas Gaztela eta Leongo Juntako migrazio politiken zuzendaria, Jaime Valdeolmillos Nafarroan dagoen Gaztela eta Leongo Etxeko presidentea eta Benjamín Arca Eskualde Etxeen Nafarroako Federazioko presidentea.

Ekitaldira Eskualde Etxeen Nafarroako Federazioa osatzen duten bederatzi erakundeetako 50 ordezkari inguru joan ziren: Andaluzia, Aragoi, Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon, Valentiako Erkidegoa, Extremadura eta Galiziako etxeak eta La Encina Altsasun dagoen Extremadurako zentro kulturala.

Ekitaldia hasteko, Nafarroako eta Gaztela eta Leongo ereserkiak entzun ziren, eta, harrera ofizialaren amaieran, eskualde etxeetako kideek dantza folklorikoen erakustaldi labur bat eskaini zuten Nafarroako Foruei egindako monumentuaren ondoan.

Eskualde Etxeen Nafarroako Federazioaren 23. Aste Kulturala irailak 29 eta urriak 2 bitarte egin da, eta egun handia urriaren 1a izan zen. Eguna 11:00etan hasi zen ekitaldi erlijioso baten bidez, eta Iruñeko San Nikolas elizan loreak eskaini zitzaizkion santuari. Ondoren, Foru Gobernuak harrerari ekin zion. Eguneko programa amaitzeko, Baluartean, Gaztela eta Leongo Mayalde folk musika taldeak emanaldia eskaini zuen.



Vera kontseilaria Nafarroan dauden eskualde etxeetako ordezkariekin batera